

GARRAIOAK, MUGIKORTASUNA ETA TURISMOA SUSTATZEKO FORU DIPUTATUAREN FORU AGINDUA. HONEN BIDEZ 25 BAIMEN GEHIGARRI EMATEN DIRA BIDAIAIRIAK BILBOKO AIREPORTUAN HARTU AHAL IZATEKO, PREMIAZ ETA ALDI BATERAKO 2025EKO UDARAKO.

ORDEN FORAL DE LA DIPUTADA FORAL DE TRANSPORTES, MOVILIDAD Y TURISMO, POR LA QUE SE CONCEDEN 25 AUTORIZACIONES ADICIONALES PARA PODER RECOGER A PERSONAS VIAJERAS EN EL AEROPUERTO DE BILBAO, CON CARÁCTER URGENTE Y TEMPORAL PARA LA ÉPOCA ESTIVAL DE 2025.

Garraioen Antolamendu Zerbitzuak:

El Servicio de Ordenación del Transporte

JAKINARAZTEN DU:

INFORMA:

Taxiaren jarduera erregulatzen duen araudiaren arabera, zerbitzuak, oro har, lizentziaren udalerrian hasi behar dira. Salbuespenen artean, araubide bereziko eremuetan (aireportu eta portuetan, esaterako) edo zerbitzu bateratuak emateko eremuetan emandako zerbitzuak aurkitzen dira.

De acuerdo con la normativa reguladora de la actividad del taxi, los servicios se deben iniciar, como regla general, en el municipio de la licencia. Entre las excepciones, se encuentran los servicios prestados en zonas de régimen especial (como aeropuertos y puertos) o áreas de prestación conjunta.

Garai hartako Herri Lan eta Garraioetako foru diputatuaren azaroaren 14ko 4894/2000 Foru Aginduak Bilboko aireportuan bidaiariak jaso zitzaketen eta Loiu helbidea ez duten turismoko automobiletan (VT) zerbitzu publikoa emateko 111 baimen ezarri zituen.

La Orden Foral 4894/2000, de 14 de noviembre, del Diputado Foral de Obras Públicas y Transportes fijó en 111 el número de autorizaciones de servicio público en automóviles de turismo (VT) con licencia no residenciadas en Loiu que podían recoger a personas viajeras en el Aeropuerto de Bilbao.

Foru Agindu hori aplikagarria da oraindik, baina 2000. urteaz geroztik Bilboko aireportuko bidaiari kopurua etengabe hazi da.

Dicha Orden Foral sigue siendo de aplicación pero desde el año 2000 la afluencia de personas viajeras en el Aeropuerto de Bilbao no ha parado de crecer.

Aenaren datu ofizialen arabera, aireportuko bidaiariak 2004an 3.395.773 izatetik 2024an 6.777.267 izatera igaro dira (% 99,6ko igoera 20 urtetan).

Según datos oficiales de Aena, las personas pasajeras del Aeropuerto han pasado de 3.395.773 en 2004 a 6.777.267 en 2024 (un 99,6% de aumento en 20 años).

Horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiak 2025eko Urteko Araugintza Planean sartu du aireportuko araubide bereziko eremuaren sorrera eta araupena.

Por ello, la Diputación Foral de Bizkaia ha incluido en el Plan Anual Normativo de 2025 la creación y regulación de la zona de régimen especial del Aeropuerto.

Baina Araubide Bereziko Eremua irtenbide iraunkor gisa onartzen den bitartean, 2025erako aldi baterako beharrezkoa da bidaiariak aireportuan jaso ditzaketen VT baimenen (taxiak) kopurua handitzea.

Pero mientras se aprueba como solución permanente la Zona de Régimen Especial, con carácter temporal para el año 2025 es necesario aumentar el número de autorizaciones VT (taxis) que pueden recoger a personas viajeras en el Aeropuerto.





Premiazkoa da Foru Agindu bat onartzea, udagaraia hurbil dagoelako eta bertan hegaldi gehienak biltzen direlako (zehazki, maiatzetik urrira).

Zerbitzuaren proposamena da baimenen kopurua handitzea maiatzaren 26tik urriaren 19ra (biak barne), baina soilik astelehenetik ostiralera 18:00etatik aireportua itxi arte (azken hegaldiko bidaiariak jasotzen direnean).

Baimen gehigarrien kopurua 25 izango da, eta hori bat dator Loiuko udalerriri (izan ere, aireportua bertan baitago) 2005eko otsailaren 11ko Esko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan Sailburuaren Aginduari jarraiki dagozkion VT baimenen gehieneko kopuruarekin, hainbat faktoreren arabera.

Baimen gehigarriak, ia guztiak, aireportuko bidaiariak har ditzaketen taxi-gidarien udalerrietatik datoz.

Hala ere, komenigarritzat jotzen da Meatzaldeko araubide bereziko eremua sartzea, Abanto-Zierbana, Muskiz, Ortuella eta Trapagarango udalerriak hartzen dituen. Horiek ados jarri ziren Bizkaiko erregimen bereziko eremu bakarra onartzeko (589/2017 Foru Aginduaren bidez sortua). Lau udalerrien artean 23 baimen daude, beraz, udalerrietako zerbitzua bermatuta dago.

Azaldutakoaren ondorioz, eta Bizkaiko Foru Erakundearen Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 3/1987 Foru Arauak; Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko Sailaren egitura organikoa onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 84/2024 Foru Dekretuak eta horiekin bat datozen gainerako xedapenek emandako ahalmenak aplikatuz, sinatzen duenak Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko foru diputatuari begirune osoz honako hau proposatzen dio:

Es necesario aprobar una Orden Foral con carácter urgente, por la proximidad del periodo estival, en el que se concentra la mayor parte de los vuelos (concretamente, de mayo a octubre).

La propuesta del Servicio consiste en aumentar el número de autorizaciones desde el 26 de mayo al 19 de octubre (ambos incluidos), pero solo de lunes a viernes desde las 18:00 hasta el cierre del aeropuerto (cuando se recojan a las personas viajeras del último vuelo).

Se establece en 25 el número de autorizaciones adicionales, que es coherente con el número máximo de autorizaciones VT que le corresponden al municipio de Loiu (donde se encuentra el Aeropuerto) en virtud de la Orden de 11 de febrero de 2005 (del Consejero de Transportes y Obras Públicas), que establece el número máximo de autorizaciones VT por municipios, en función de una serie de factores.

Las autorizaciones adicionales provienen, casi en su totalidad, de municipios cuyos taxistas ya pueden recoger personas viajeras en el Aeropuerto.

No obstante, se estima conveniente incluir a la zona de régimen especial de Meatzaldea, que engloba a los municipios de Abanto-Zierbana, Muskiz, Ortuella y Valle de Trápaga, que se pusieron de acuerdo para aprobar la única zona de régimen especial en Bizkaia (creada mediante Orden Foral 589/2017). Entre los cuatro municipios suman 23 autorizaciones, por lo que el servicio en los municipios queda garantizado.

En virtud de lo expuesto, y en aplicación de las facultades conferidas por la Norma Foral 3/1987 sobre Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del THB, el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 84/2024 que aprueba el Reglamento de estructura orgánica del Departamento Foral de Transportes, Movilidad y Turismo y demás disposiciones concordantes, quien suscribe tiene a bien someter a la Diputada foral de Transportes, Movilidad y Turismo la siguiente propuesta de:





FORU AGINDUA

LEHENENGOA.- Helbidea Loiuko udalerritik kanpo duten VT lizentziek Bilboko aireportuan jatorria duten hiriarteko zerbitzuak egin ahal izateko gaitzen duten beste 25 baimen gehitzea.

25 baimen gehigarri horiek 4894/2000 Foru Aginduaren arabera dauden 111 baimenei gehituko litzaizkieke.

Hala ere, 25 baimen gehigarriak aldi baterako ematen dira, 2025eko maiatzaren 26tik 2025eko urriaren 19ra arte (biak barne), 2025eko udako denboraldiko bidaiari-kopurua asetzeko.

Epe horren barruan solik astelehenetik ostiralera joan ahal izango dira 18:00etatik aireportua itxi arte (azken hegaldiko bidaiariak jasotzen direnean).

Hori guztia, Bilboko Aireportuko Araubide Bereziko Eremua sortu eta arautuko duen Foru Agindua izapidetzen den bitartean.

BIGARRENA.- 25 baimen gehigarrien banaketa **ezartzea**, proportzioan honetan hain zuzen ere:

Bilbo: 14
Barakaldo: 3
Basauri: 1
Galdakao: 1
Portugalete: 1
Santurtzi: 1
Sestao: 1
Sondika: 1
Meatzaldeko Erregimen Bereziko Eremua: 2

HIRUGARRENA.- Udal autonomiaren printzipioa errespetatuz, udalerrri bakoitzak egoki deritzon moduan antolatu ahal izango du dagozkion baimen gehigarrien txandakako banaketa, eta ezin izango da diskriminatu VT udal-lizentzien titularrik.

Hala ere, egun libreen egutegia araututa duten udalerrietan, taximetroak horretarako aukera ematen badu, egun libreen dauden profesionalak bakarrik joan ahal izango dira aireportura 18:00etatik aurrera, udalerriri

ORDEN FORAL

PRIMERO.- Incrementar en 25 autorizaciones adicionales, habilitantes para que las licencias de VT residenciadas fuera del municipio de Loiu puedan realizar servicios interurbanos con origen en el Aeropuerto de Bilbao.

Esas 25 autorizaciones adicionales se añadirían a las 111 existentes en virtud de la Orden Foral 4894/2000.

Sin embargo, las 25 autorizaciones adicionales se otorgan con carácter temporal, desde el 26 de mayo de 2025 hasta el 19 de octubre de 2025 (ambos incluidos), para cubrir el pico de personas pasajeras de la temporada estival de 2025.

Dentro de ese periodo solo podrán acudir de lunes a viernes desde las 18:00 hasta el cierre del aeropuerto (cuando se recojan a las personas viajeras del último vuelo).

Todo ello mientras se tramita la Orden Foral que vaya a crear y regular la Zona de Régimen Especial del Aeropuerto de Bilbao, con carácter permanente.

SEGUNDO.- Establecer el reparto de las 25 autorizaciones adicionales, que se realizará en la siguiente proporción:

Bilbao: 14
Barakaldo: 3
Basauri: 1
Galdakao: 1
Portugalete: 1
Santurtzi: 1
Sestao: 1
Sondika: 1
Zona de Régimen Especial de Meatzaldea: 2

TERCERO.- Con respeto al principio de autonomía local, cada municipio podrá organizar como estime conveniente el reparto rotatorio de las autorizaciones adicionales que le correspondan, sin que se pueda discriminar a ninguna de las personas titulares de las licencias municipales de VT.

No obstante, en los municipios que tengan regulado un calendario con días de libranza, y siempre que el taxímetro así lo permita, únicamente los profesionales que se encuentren en día de libranza podrán acudir al aeropuerto de 18:00 en adelante,





dagozkion baimen gehigarrien arabera.

en virtud de las autorizaciones adicionales que le correspondan a su municipio.

LAUGARRENA.- Foru agindu honen berri ematea alderdi interesdunei, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzaten; zehazki, foru agindu honetan zerrendatutako udalerrietako udalei.

CUARTO.- Dar traslado de esta Orden Foral a las partes interesadas, para su conocimiento y efectos oportunos; concretamente, a los Ayuntamientos de los municipios enumerados en la misma.

BOSGARRENA.- Foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko diputatuari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean, bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen 10. eta 46.1 artikuluen arabera, bi kasuetan, foru agindu hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke, hala badagokio.

QUINTO.- Contra esta Orden Foral, que agota la vía administrativa, se podrá interponer potestativamente recurso de reposición ante la Diputada de Transportes, Movilidad y Turismo en el plazo de un (1) mes, conforme a los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o bien directamente recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, conforme a los artículos 10 y 46.1 de la Ley 29/1998 reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en ambos casos, desde el día siguiente a la notificación de esta Orden Foral, todo ello sin perjuicio de que se pueda ejercitar, en su caso, cualquier otro recurso que estime procedente.

Edonola ere, zeuk ebatziko duzu / No obstante, Vd. resolverá

Aurreko txostena onartzen da, eta hartan proposatutakoarekin bat ematen da ebazpena

Se acepta el informe que antecede y se resuelve, conforme a lo que en el mismo se propone

Sin./Fdo.: OIER MUNARRIZ FERNANDEZ - 2025-05-21
GARRAIOAK ANTOLATZEKO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE ORDENACIÓN DEL TRANSPORTE

Sin./Fdo.: XABIER ESTEBAN CELAYA - 2025-05-21
GARRAIOEN ZUZENDARIORDEA
SUBDIRECTOR/A TRANSPORTES

Sin./Fdo.: ANTONIO JARAICES SALAZAR - 2025-05-22
GARRAIOEN ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE TRANSPORTES

